

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2006ko irailaren 28an • 198. zka.

The image shows the front cover of the newspaper 'Aretxagazeta' celebrating its 50th anniversary. The cover features a photograph of a street scene with two shops: 'ARKAUZ' and 'ASENSIO'. A large, stylized number '50' is overlaid in the center. The entire cover is framed by a white hexagonal grid pattern. The top of the cover has the newspaper's name in large letters, and the bottom has the anniversary title. The background image shows a street with a dog in the foreground and various signs on the buildings.

50

Mende erdiko erronka

Ituririk iturri: Aita Migel Lete • Iritzia: Andoni Lopez de Armentia • Kirolak: Jose M^a Armentia



Paz
Torras

Berokiak, trajeak,
alkondarak,
prakak eta
kamisetak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

b **berbetan**
HIZKUNTZ ESKOLA

HELBIDE BERRIA:

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA

Belorrieta, 4

20550 Aretxabaleta

Tel./Fax: 943 79 00 69

Bulego ordutegia: arratsaldeko 4etatik 7etara

Ingelesa

Frantsesa

Alemana

Maila guztiak

(First Certificate of Cambridge, ...)

Klaseak goizez eta arratsaldez

Adin guztiak

2000 - 2001 ikasturtea
MATRIKULA EPEA IREKITA, azkenengo egunak

Andramaixak edo San Migelak dittuzu gustokuau? Baserritar jantzi izen zara San Migeletan?



Juanma Castilla

San Migelak. Jente gehixau egoten da, eta giro hobia be bai. Ez, ni neu ez naz jantzi izen.




Laura Aldalur

Andramaixak. Herriko betiko jaixak izen die Andramaixak eta nik gurau dittut. San Migelak, barrez, gero sortutakuak die.



Ana Urzelai

Andramaixetan ez naz egon izen eta San Migeletan be ez naz gehixei urteten. Umiak baserritar jantzi izen dittut San Migel zapa-tuen.



Jesus Mari Martinez

San Migelak. Giro hobia egoten da eta jentia be gehixau. Ni neu ez naz jantzi izen.

ESKUTITZA



1000 BAIETZ

Agur t' erdi:

Iada badakizue Euskal Herrian Euskaraz taldea mar-txan dagoela. Urtez urte gu-re asmoa euskararen susper-tzea eta indartzea da. Proiek-tu aunitz ditugu esku artean; besteak beste Atxabaltan, osasungintza alorrean, eus-karak sufritzen duen gabe-zia. Horren inguruan infor-matuko zaituztegu urtean zehar eta egingo ditugun ekintzetan partehartze sen-doa eskatzen dizuegu. Bide batez, informazioa luzatu nahi dizuegu 1000 BAIETZ kanpainari buruz.

1000 BAIETZ kanpaina Euskal Herrian Euskarazek abian daraman 2000-2001. urteetarako proiektuetako bat da, gure helburua ahalik eta bazkide gehien lortzea da. Horretarako ez dago eginbehar haundirik, San Migeletan Durana kalean egon-go baikara. Hortaz, Euskal

Herri Euskaldun baten alde-ko apostua egiteko asmoa daukazuen atxabaltar guz-tiok bertara hurbiltzea beste-rik ez daukazue. Zuen kontu korronteko zenbakia aurkez-tea ezinbestekoa izango da. Beraz, badakizue San Mige-letan Atxabaltako EHE zuen zain dagoela. Eskerrikasko eskaintako harretagatik. BAIETZ 1000 BAZKIDE LORTU? Oharra: Ikasle eta langabetuei 500 pta. hilero eskatuko zaie. Langileei aldiz 1000 pta. Aurretik bazkide zaretenok gurekin kontak-tuan jartzea eskatzen dizue-gu. Eskerrik asko.

Aretxabaletako EHE

Atxabaltarrok: Dakizuenez, irailaren 17an Haur Dantzari txikien eguna ospatu genuen. Egundorrek urte guztian zehar euskal dantzak ikasten aritzen diren haurren eszenatoki izatea du helburu. Era berean atxabal-

tarroi euskal folkloreaz goza-tzeko aukera ematen digu. Egundorez horretan herrita-rron partaidetza ezinbeste-koa da, haurrak etxeetara bazkaltzera joaten direlako; gure haurrak beste herrietan joaten diren bezala. Azken urteetan, ordea, haurrak etxeetara eramaten dituzten familia kopurua nabarmen jaitsi da; 1000 eskaera orri bidali ditugu eta 34 erantzun bakarrik jaso ditugu herrian. Haur kopurua, berriz, 200nekoa izan zen, eta asko bazkaltzeko leku barik gera-tu ziren. Egoerak horrela jarraituz, Haur dantzarien eguna desagertzera irits dai-teke. Hau gertatzea nahi al digu?

Loramendi dantza taldea

Aretxagazeta

198. zenbakia
2000ko irailaren 28a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzailea:
Aitor Urrutia.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egi-ten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaz enpresa bat arduratuko da

Udalaren bitartez ematen den etkez etxeko laguntza zerbitzua urritik aurrera enpresa batek eroango du. Uztailaren 26an egindako osoko bilkuran Arrasateko Atsedeen enpresari eman zitzaion honen ardura.

Zerbitzua aurrera erueteko enpresa hartzeko arrazoiak bi izan dira. Batetik, lan honetan ari ziren langileen egoera hobetzea eta bestetik, zerbitzu hobea eskaintzea. Bestalde, Diputazioak ere beste bide bat hartzera bultzatu zituela aipatu behar.

Udalak egindako deialdi-

ra 5 enpresa aurkeztu ziren eta bakoitzak proposamen bat ekarri zuen. Hainbat alderdi baloratu ziren; zerbitzua noentzat den argi izatea, prezioa, esperientzia eta lehengo langileak hartzeko prest egotea beste batzuen artean. Bego Arenaza gizarte laguntzailearen esanetan: "etkez etxeko laguntza zerbitzua emateko enpresa bat hartzea udalarentzat erabaki serioa izan da, batez ere aurrekontua bikoiztu delako. Argi dago udalak egoera hobetu gura duela eta kalitatezko zerbitzua eskaini".




Aldaketa poliki-poliki

Atsedeen enpresa urrian lanean hasi aurretik, poliki-poliki aldaketara egokitu gura dira zerbitzu hartzaileak. "Aldaketa ahal den samurren egin gura dugu. Horretarako batetik, azalpenak emango ditugu, eta bestetik, hasieran behintzat lehengo laguntzaileak mantenduko dira. Diru aldetik ere aldaketa haundirik egin ez dadin saiatuko da" dio Begok.

Zerbitzu pertsonalari garrantzia

Enpresa honek, lehengo langileek bezala, etkez etxeko zerbitzua emango du: bai etxeko lanak egin, bai laguntza pertsonala eskaini. Hemendik aurrera, barrez, laguntza pertsonalari emango zaio garrantzia.

Zerbitzu hau edonork eska dezake udaleko gizarte laguntzaileen aurrean. Ondoren egoera ekonomikoa, familiako egoera eta beste hainbat xehetasun begiratzaren dira. Azterketa hau pasatzen ez duenak ere gura izanez gero, pertsonalki kontrata dezake enpresa honen zerbitzua.



Gripearen kontrako txertoaren kanpaina hasi da

Urtero letxe udazkenarekin batera, gripearen kontrako txertoaren kanpaina jartzen da martxan Euskal Herriko osasun zentruetan. Aretxabaletan ere irailaren 18an hasi eta urriaren 31 arte egongo da txerto hau hartzeko aukera.

Clemente Domingo praktikantearen esanetan, urtero bezala 65 urtetik gorakoei egiten zaie batez ere deialdia. 65 urtetik beherakoen artean, bestalde, diabetesa, bihotzeko arazoak edo giltzurrunetako arazoak dituztenei ere komeni zaie hartzea. Txertoa hartzeko osasun zentrutik pasatu aurretik ez ahaztu txanda hartzeko telefonotik deitzea.

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57



Aretxabaletan lur sail txikia duen, 250 m²ko etxea salgai.
Prezio interesgarria.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02



Aretxabaletan pisua alokagai. Hiru gela, bainua eta egongela. Leku onean eta eguzkitsuan.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02



Aramaion 300 m² dituen baserria, 2000 m²ko lur sailarekin salgai.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02

TXAKUR KAKEZ BETETA DAUDE LORATEGIAK

Udalak txakur kaken arazo konpondu ordez larritzen doala jakinarazi gura du. Era berean, gogorarazi txakurren kakak jasotzeko poltsak ematen direla udaltxean inolako konpromiso barik eta mesedez, txakurdun guztiak pasa daitezela jasotzera. Arazo estetiko eta higienikoaz gain, lorazainen makinak ere sarri hondatzen dira kaka horien erruz. Arazoak konpontzeko itxurarik hartzen ez bada, beste udalerrri batzuetan letxe ordenantza atera beharko duela isunak jarren hasteko dio udalak.

EPAIMAHAI AUZITEGIA AUKERATZEKO ZOZKETA

Epaimahai auzitegia edo "jurado popular" delakoa aukeratzeko zozketa egin zen pasa den martizenean Donostiako administrazioan. Aurretik, irailaren 18tik 25era bitartean, errolda ikusgai egon zen udaltxean eta bertan agertzen ziren izen guztiek parte hartu zuten zozketan. Aretxabaletatik 10 bat lagun aukeratu zituzte epaimahai horretarako eta behin betiko zerrendak azaroa inguruan kaleratu dira, ostean erreklamazioak aurkezteko epea egongo da.



Plan estrategikoko kontseilu orokorra eta aholkularia osatu dira

Herriko plan estrategikoaren lehenengo pausuak eman dira

Joan zen astean Aretxabaletako plan estrategikoan parte hartuko duten talde garrantzitsuenak osatu ziren, kontseilu orokorra eta aholkularia, hain zuzen.

Herriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatu eta atxabaltarren bizi kalitatea hobetzea helburu duen plan estrategiko hori, eztabaida eta adostasunean oinarrituko da. Momentuz bi lan talde eratu dira eta talde politiko, sindikatu, kultur, kirol, osasun, heziketa eta ekonomi sektoreetako ordezkariak izan ziren bertan. Atxabaltarren atxabaltarrentzat egindako plana izatea lortu gura da parte hartze horrekin.

Plan honen gidaritzza LKS aholkularitza enpresak dararama eta bere esanetan ezinbestekoa da plan honetan parte hartu behar duten guztiek Aretxabaleta ondo ezagutzea: demografia, nekazaritza, industria, komertzioa, turismoa, ingurugiroa...

Kontseilu orokor eta aholkulariaren lana, bestalde, LKS-k aurkeztutako herriko diagnostikoa aztertu eta eztabaidatu ostean, adostasunera heltzea izango da. Honen ostean, herriaren garapenerako izango diren oztupoak, lehia-kortasun abantailak eta herriko etorkizuneko proiektua aurreikusi beharko dira.

EGOERA ESKASEAN GERATUTAKO HERRIKO ERREPIDEAK KONPONDU DITUZTE

Kolektorea sartzeko lanak burutu zirenetik, herria zeharkatzen duten errepide garrantzitsuenak nahiko egoera eskasean geratu ziren. Kolektoreko arketak jarri ziren tokietan behar den beste itxoin barik asfalto bota zen eta ondorioz, lurak behera egin zuen eta zulouneak sortu. Araba Ibilbidea eta Otalora kalea ziren egoera eskasean zeudenak.

Kolektore lanen sustatzailea Ur Kontsurtzioa izan zenez eta hau Foru Aldundiaren esku dagoenez, berari tokatzen zitzaien kaleak konpontzea eta hortantxe ibili zen joan zen astean. Zulouneak estalita geratu dira, beraz, hemendik aurrera kotxeek arazo barik zeharkatu dituztela Aretxabaletako kaleak pentsatu behar.



GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

San Migelak hasteko gertu

Ailegatu dira San Migelak gurera ere. Aurten iraileko azkenengo aste bukaeran ospatuko dira eta urtero letxe euskal giro bikaina izango da nagusi. Jai batzordea, Loramendi E.E., Loramendi dantza taldea, Gestorak, Leizarra musika eskola, Haika, Murruxio M.E. eta KIUB ibili dira antolatzaile lanetan, baita egitarau txukuna prestatu ere.

Zapatuan, egun nagusia izanik, egongo da bai zer ikusi, zer jan eta zer dantzatu. Horretarako, anima gaitetzen herritar guztiok base-rritar jantzita ateratzera.



■ Irailak 29 eguakotxa

- 18:30 Txupinazoa eta japoniar bonbak herriko plazan.
- 19:00 Erraldoi eta buruhaundiak kaleetan Aretxabaletako txistulariekin.
- 19:45 Durangoko otxotea herriko tabernetan kantari.
- 23:00 Golden Apple Quartet taldea.

■ Irailak 30 zapatua

- 10:00 Diana herriko txistulariekin.
- 11:00 Txalaparta Durana kalean.
- 11:30 Leizarra musika eskolako trikitilariak.
- 12:30 Salda Durana kalean.
- 13:00 Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariak.
- 14:30 Herri bazkaria "euskal presoak etxera" lemapean, eguraldiaren arabera Durana kalean edo Iturrigorri frontoian. Ostein, asto karrera Durana kalean.
- 17:00 Hala Gera gaiteroak kaleetan zehar.
- 19:00 Beinke-Loramendi dantza herriko plazan. Ostein, Juanito Urretari agurra.

- 20:00 Larrin dantza Durana kalean.
- 22:30 IX. San Migel bolo txapelketa.
- 23:00 Sorbeltz taldearekin dantzaldia Mitarte kalean.
- 23:00 Afizionatu mailako pilota partiduak Iturrigorri frontoian.

Goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak bitartean, artisau feria eta VI. produktu biologikoen feria herriko plazan. Bitartean, Altsasuko momorrotxoak ibiliko dira herriko kaleetan eta gainera, talo eta sagardo postuak.

■ Urriak 1 domeka

- 13:00 Aizkolariak eta harrijasotzaileak: Euskal pentaklona. Aizkolariak: Ernesto Ezpeleta (Bihurri), Jose Etxebeste, Patxi Larretxea eta Jose Ignacio Flores. Harrijasotzaileak: Goenatxo II, Eluskorta. Aurkezlea: Ziriako.
- 16:00 VIII. San Migel mus txapelketa Izen-ematea 2.000 pta. 15:15etatik 15:45era.
- 16:30 Umeentzako parkea herriko plazan.

ESKORIATZA
Bazkari eta afariak
ERRETEGIA
MENDIOLA
Tfno 714345

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

DOIKALSE
Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Marti

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

San Migel
erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

EUSKAL NORTASUN AGIRI OFIZIALA ESKATUKO DA SAN MIGELETAN

Bai Euskal Herriari plataformak bultzatuta euskal nortasun agiri ofiziala eskatzeko sinadura bilketa egingo da zapatuan.

Udalbiltzak, euskal nortasun agiri nazionala jaulkitzeko proiektua dauka eskuartean eta plataforma honek herritarren babesa eskaini gura dio. 300 mila sinadura batu gura dira Euskal Herrian, beraz, atxabaltar abertzale guztiak anima zaitezte zapatuan sinadura ematera.

Txosnetan egitarau berezia San Migeletan

San Migelak girotu guran Haika eta Gestorak eta Txiapas eta Kalamudiak txosnak jarriko dituzte. Egitarau berezia ere atera dute.

■ Irailak 29 eguakotxa

22:00 Txupinazioa, txalaparta eta etxafleroekin.
22:30 Kontzertua: Versus, Septicemia, Dipty Dau, Lopez.

Gauean zehar margolariak egongo dira eta patata brabak dastatzeko aukera ere izango da.

■ Irailak 30 zapatua

22:30 Tan-tan jaialdia.
00:00 Manifestazioa "askatasunaren bidean nazio eraikuntza borrokatu" lemapean.
2:00 70. hamarkadako DJak.

Patata brabak eta txiapaseko tonbola egongo dira gauean zehar, baita graffiti egileak ere.

Drogen kalitatea aztertzeko postua ere jarriko da.

■ EUSKALDUNON GIDA ETA POSTA KODEAK

Artez euskara zerbitzuak, Euskaldunon Gida kaleratu du. Gida horretan euskaldun ez osatutako elkarte, profesional eta enpresen zerrenda jasotzen da eta aurtengoak, gainera, Euskal Herriko herri guztietako, eta hiriburu eta herri haundienetako kaleen posta kodeak jasotzen ditu. Gidak liburu tankera dauka eta hiru atalek osatzen dute: gida zuria (herrikakoa), gida horia (arlokakoa) eta gida urdina (posta kodeena). Honez gain gida osoa interneten egongo da ikusgai www.euskaldunongida.net helbidean.

Gida euskaraz bizi gura dutenei zuzenduta dago eta bertan, eguneroko bizitzan erabiltzen diren zerbitzuak euskaraz eskaintzen ditu.

Herriko Herriaren Eskubideen eta Eskubide Politikoen Aldeko Herri Ekimena

zure hitza, zure erabakia, zure sinadura

Bai Euskal Herriari



<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaitetz orain!

Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

MATRIKULA EPEA ZABALIK

A H I Z K E S . C O O P

Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com

Olakua, 14 - 20560 ONATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51
E-mail: oinati@cim-idiomas.com

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Fax: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaiby@cim-idiomas.com

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
Tel.: 943 43 31 02 Fax: 943 43 37 36
E-mail: donostia@baiby.com

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

bai & by



ESPALOIA EGINGO DA ERROTABARRITIK EDERLANEKO ZUBIRAINO

Errotabarri inguruan espaloia jarteko lanak adjudikatzeke orri administratiboak kaleratzea onartu zen astelehen honetan egindako osoko bilkuran. Errotabarri inguru hortan jende asko ibiltzen dela, Ederlanera joan-etorria egiten duten langileak batez ere, eta tarte horretan errepidea ez dela batere segurua ikusita, espaloia jarri beharra dagoela erabaki du udalak. Horretarako 70 zm. zabalduko da errepidea.

Araba Ibilbidetik Ederlaneko zubiraino joango den espaloien proiektua onartua dago eta orain lanak konkurtso bidez adjudikatzea onartu da. Lan horien aurrekontua 34,9 milioiokoa da eta 6 hilabeteke epean egin beharko dira.

Jubilatuen eguna urriaren 7an ospatuko da

Urriaren 7an ospatuko da aurtengo jubilatuen eguna. Egun politaz gozatzeko aukera izango dute herriko nagusiek, eurekin pentsatuta antolatutako eguna da eta. Goizeko 11etan salda egongo da Basotxon eta ondoren, eguerdiko 12:30ean meza Aretxabaletako parrokian. 13:30ean, ostera, bazkari goxo-goxoa kiroltxean: paella, legatza koskera erara eta sagar opila izango dira, baita kafea, kopa eta purua ere gura duenarentzat. Bazkal ostean, eguna politto bukatzeko, dantzaldia Ludi Berri taldearekin eta opari ugari. 65 urte beteta edo aur-

ten beteko duen edonork har dezake parte jubilatuegunean eta bazkarira joan ahal izateko, txartelak hartu behar dira Basotxon eguakotxa, hilak 29, baino lehen. Bego Arenaza udaleko gizarte laguntzailearen esanetan "urtetik urtera gero eta jubilatueguneak animatzen dira etortzera. Iaz, guztira, 300 inguru izan baziren, aurten gehiago izango direlakoan gaude".

Herriko emakume eta gizonezko zaharrenei ere emango zaizkie opariak Juana Arranz eta Julian Elorzari, hain zuzen. Azken honek, gainera, otsailean 100 urte beteko ditu.



AGUR ANDEREÑO ARANTXARI

Joan zen domekan, hilak 24, Arantxa Iza andereño izandakoa hil zen Donostian 71 urte zituela. Hileta ospakizunak, barrez, Bergaran egin ziren martizean. Oso ezaguna izan zen Arantxa Aretxabaletan, Loramendi ikastolako lehenengo andereñoa izateaz gain, 25 urte egin zituelako bertan. Loramendi ikastola sortu zuten gurasoek ekarri zuten Arantxa Aretxabaletara eta irakasle titulorik euki ez arren ederto bete zuen bere zeregina, umeak asko gustatzen zitzaizkion eta.

1993ko azaroaren 27an, erretiroa hartu aurtxoan, omenaldi hunkigarria egin zitzaion: gurasoek, lehenengo ikasleek, lankideek... orduan gero arte esan zioten eta orain agur eta beti arte esango diogu.



Gero eta jubilatueguneak animatzen da jubilatueguna ospatzera

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



*Aretxabaleta
okindegia*

San Migel
jai zoriontsuak


Mitarte, z/g ☎ 943 77 00 81
Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19



- ✓ Gidatzeko baimen guztiak jaso ditzakezun eskola
- ✓ Klase teorikoetara bereziki zuzenduriko maixua
- ✓ Zure ordutegira egokitzen gara

Informa zaitez:
Bulego ordutegia:
goizez 10:00etatik ordu 1:00era
arratsaldez 16:00etatik 20:00etara

Basabe Poligonoa F-0-7 •
Tel: 943 79 64 50 ARETXABAETA



LEIBAR
ARRINDEGIAK

Mitarte, 1 • Tf. 943 771379
Loramendi, 1 • Tf. 943 791833

ERASTI
Kioskoa

Durana, 19 • Tf. 943 799876

GEMES
EDERTZE ARETOA

Durana, 40
Tf. 943 799918

Santa Kurtz
Janari denda

Tf. 943 79 28 19

DROGERIA
MERTZERIA

LEINTZ

Errekabarren, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 63
(etxekoa) 943 79 06 84

IBARRA
ESTANKOAK

PRENTSA
IKASMATERIALA

Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tf. 943 79 23 53

JON
HARATEGIA

Loramendi, 1 Tf. 943 79 71 69

Martín
RELOJERIA • BITXITEGIA

Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72

FARMA
BIZI

Loramendi, 8
Tfnoa-Faxa: 943 771818

BITXITEGIA
MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA
BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea. Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 771357

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL JANARI
DENDA

Gorbea kalea. • Tfnoa: 943 79 05 83

ALBOKA
MODA JOVEN

Durana, 36 • Tfno: 943 771610

ELECTRONICA
RITZORROTZ

• Automatismo y mantenimiento
• Instalaciones eléctricas
• Porteros, antenas colectivas y parabólicas
• Venta, reparación TV, AUDIO-VÍDEO
• Canal Satélite digital

Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610

FLORISTERIA
NERIAN
LORADENDA

Tfno.: 943 79 70 66

ARTESANÍA

CENTRO
COMERCIAL
LEZAMA, 14

- artesaniza.
- artesania. TFNO. 943 770792

CONFECCIONES
ASENSIO
JANTZIDENDA

Mitarte, 12 • Tfno.: 943 79 10 72

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • Tfno.: 943 79 61 42

ARETXABALETAK
Fontanería
ITURGINTZA

Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53

PAPERDENDA
LIBRERIA
LOTERIA

IBER

Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 79 24

Zubia
Oinetakoak
Poltsak • sapatak • gerritxoak

Mitarte, 14
Tfnoa: 943 79 16 00

IRIARTE
Umeen denda
eta lantzeria

Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 36 96

TXILARRA
ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tf.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tf.: 943 79 44 28

Irudi
ILEAPAINKETA
PELUQUERIA MIXTA

Erreka Barren, 20 b. • Tf. 943 798090

HERRASTI AKEITA ETXEA

CAFES
i. Brasilakoa

Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83

XUME
Teladenda

ERREKABARREN, 14 • Tf. 943 79 11 19

Aretxarte merkatarik elkartearen logotipo lehiaketa

Concurso de logotipo de
la asociación Aretxarte



Oinarriak: Elkarteetako komertzioetan
Bases: En los comercios asociados

Lasai
Mirian Manteca
Masajes

Masaje terapeutikoa
Posturen arteriketa eta
egokitzean diplomatus

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434

JOSU
Urdaitegia
Gozotegia
Kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08

Larrad
Peluquería y Salón de belleza

• EXTENSIONES
• MICROPIGMENTACION
• DEPILACION ELECTRICA

Loramendi, 11 • Tf. 943 799079

Etxabe
harategia

Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61

REGIOBO
OPTIKA

Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21

Gertu
Jakien Elaborazio
eta Salmenta
Elaboración y
Venta de Comida

ESPECIALIDAD
EN BACALAO

Mitarte, 10 • Tf. 943 770612

HAURRAK
Umeendako moda

Lezama merkatal zentrua, 15
Tf. 943 77 14 88

Fruteria
Errekabarren
943 799643
Frutadenda

ZENIZ
liburudenda

Herriko Plaza, 10
Tf. 943 79 75 53

BUSTI ETALDORREKO GARBITZAK
GARBITZE

Loramendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61

Jauregi okindesia

Otalora, 10
Tf. 943 79 57 47

ALDE ARETXABALETAK
Murubide IFA

Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76

MARI KARMEN
cazados oinetakoak
KONPONKETAK


Errekabarren • Tf. 943 79 59 85

XUME
Teladenda

ERREKABARREN, 14 • Tf. 943 79 11 19

Arkarazoko

Mendibitzu baserrian jaiotako Aita Migel Lete marianistak, 22 urtean Almenen irakasten ibili ostean, jubilatuta eta Kolonbiara joatea eskatu zuen. 74 urte ditu baina osasunak laguntzen dion artean bertan jarraituko du.



Aita Migel Lete

Sei urte Kolonbian misiolari

■ Zenbat urte Kolonbian?

■ Sei urte. Lehenengo ospitale batean egon nintzen gaixoeekin, ondoren ikastetxe batean hiriburuan, Bogotan, eta orain San Clementen, 2.000 metroko mendi puntan nago.

■ Marianista komunitatea dago bertan?

■ Bai, lau marianista gara. Bi atxabaltarrak, Urkuluko Sebastian Uribetxebarria eta ni, beste apaiz bat eta kolonbiar bat.

■ Zergatik erabaki zenuen misioetara hain berandu joatea?

■ Txikitatik gura izan dut misiolari izatea eta marianista sartu nintzenetik eskatu eta eskatu egiten nuen. Baina, hemen Euskal Herrian lan ona egiten ari nintzela esaten zidaten eta

jarraitzeko, Jaungoikoaren borondatea agertuko zela eta. Jubilatuta nintzenez, barrez, libre geratu nintzen eta azkenean lortu nuen nire nahia.

■ Zein lan egiten duzu San Clementen?

■ Nire lana San Clementeko parrokoari, hau ere marianista, laguntzea da. Herria bera txikia da, 1.000 bat biztanlekoa, baina eliza oso haundia. Ama Birjinaren santutegia delako. Hilero hilero erromes ugari hurreztatzen da bertara, beraz, ordu asko pasatzen ditut konfesategian. Bulegoan ere egoten naiz, batez ere jendearen kezka eta arazok entzuten, paperen bat behar badute berau lortzen ere laguntzen diet.

■ Nola bizi dira bertan?

■ Kafean oinarritutako ekonomia duen herria da. Kafe landareak lorea izan, baina eguraldiak laguntzen ez badu, uzta galdu egiten da fruiturik ez duelako ematen eta azkenengo bi urteetan horixe gertatu da. Beraz, egoera nahiko larrian dago jendea, zorrez beteta. Hango nekazari buruak kafeaz gain beste aukera batzuk lantzeko konbentzitu guran dabil Sebastian Uribetxebarria eta zerbait lortu duelakoan nago.

■ Biolentzia egoerarik bizi al duzue?

■ Bai, gure ingurua "zona roja" deritzana da eta han dabilta gerrilakoak. Ni, neu ere behin baino gehiagotan geratu nau poliziak, gauz joaten naizenean auzoetara, baina apaiza naizela esan eta libre utzi naute beti.

Orain, hemen nengoela, ordea, hiru gazte hil dituzte. Benetan tristea da...

■ Osasunak ez dizu gehiegi laguntzen...

■ Ez, osasunez ondo nabil. Azkenengo urtean larrialdi batzuk izan ditut, baina bihotza ondo neukala eta ez zidaten beste ezer begiratzeko. Orain hona etorri naitzenez, Donostian, behazuna kendu didate. 2.000 metroko altueran arnasa ez da beti ondo hartzen, baina ni ondo nabil, ondo zainduta nago gainera, eta aurrera.

■ Orduan Kolonbiara bueltatzeko asmoaz?

■ Bai, bai, hilaren 24an Kolonbiara bidean joango naiz beste hiru urte pasatzera, hiru urtero etortzen naiz eta. Zerbait egiteko gauza naizen artean pozik bertan.

Irakurzaletasunaren inguruan

Diotenez informazioaren garaian bizi gara. Gaur egungo teknologiak, edozein informazio jasotzeko aukera ematen omen digu. Jakin nahi duzun guzti hori interneten bidez laster aurkituko duzu, notiziak, eguraldia, bidaiak, entziklopediak, katalogoak, publizitatea... denetik.

Liburu, aldizkari eta egunkariak ere hor daude; informazio pila bat gure esku egunero, egunero.

Guzti horri probetxua ateratzeko informazioa irakurri egin behar da, eta horretarako irakurle ona izateak asko laguntzen du. Baina irakurtzea ez da bakarrik informazioa biltzea, gure denbora librean gozatzeko ere balio du eta aberastu egiten gaitu. Beraz esan daiteke oso ohitura ona eta sana dela.

Inoiz joerarik izan ez duenak ez da bapatean zaletuko, gaztetatik hartu beharreko gauza izaten baita hau ere beste asko bezala. Gehienetan gure inguruan bizi duguna errazago gureganatzen dugu. Esan ohi den bezela etxean ikusten dena, horixe ikasten da. Beraz, gurasoak irakurtzen ikusten dituzten haurrek, joera haundiagoa edukiko dute bestek baino.


Adituek ere badiote liburuetarako zaleatasuna ume umetatik hartzen dela, irakurtzen hasi haurretik ere; ipuinak kontatzen zaienean, edo irudiak ikusiz gauzen izenak ikasten dituztenean ere, liburuak maitatzen ikasten dutela.

Geroago, irakurtzen hasten denean, haurraren ikuspegia asko zabalduko da eta beste errealitate batzuk ezagutuko ditu. Mundua zabala dela jakingo dugu, eta bizimodu desberdina duen jendea ere badagoela. Liburuetako pertsonaiekin identifikatu ere egingo da batzuetan eta euren abenturekin gozatu du. Liburu eskolan ikasteko erabiltzen den zeozer baino gehiago ere badela konturatuko da eta irakurtzearen plazerra esperimentatuko du.

Lehen urrats horiek oso garrantzitsuak dira irakurle onak sortzeko, eta uste dut hori lortzeko gure esku dauden bide guztiak erabiltzea merezi duela.

Liburutegia ere hemen egongo da, beti bezala, bai haurrei, baita nagusiei ere zeregin honetan laguntzeko edo eta behar duten informazioa bilatzen laguntzeko.

Andoni LOPEZ DE ARMENTIA



**Bazkariak
eta
afariak**

MATIKUA

Azatta auzoa
Tel.: 943 79 16 68

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tel: 943 79 01 29
Aretxabaleta

**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77



Asensio jantzi-denda, 50 urte bete ostean, aurrera jarraitzeko gogoz dago.

50 urte atxabaltarron zerbitzura

Ez da gero samurra 50 urte betetzea, ez behintzat lanbide berean. 50 urte bete duen denak, beraz, badu meritua eta Aretxabaleta bezalako herri txiki batean bada gehiago. 2000. urte honetan bi denda ditugu herrian 50 urte betetzen dutenak, Arkauz taldea eta Asensio jantzi-denda. Bakoitzak bere esparruan, urtez urte irauten jakin izan du garai eta eskaerari aurre egin eta aldakuntzetara moldatuta.

Guillermo Arcauzek 1950. urtean eskarate txiki batean irratia, labadora, plantxa eta lanpara jarri zituenean ez zuen pentsatu ere egin noraino heldu behar zen. Eskarate hau Miner txirrindulari izandakoaren ilemoztegian zegoen, Mitarte

kalean eta bertan etxetresnak erakustearren 15 pezeta ordaintzen zuen hilero.

Nori zer eskaini jakitea

Marketing berbak zer esan gura zuen jakin barik, ondo asko zekien Guillermok etxe bakoitzean nori zer falta zitzaion, "horrek

labadora dauka, baina irratirik ez, beste honek, ostera, irratia badauka baina plantxarik ez" bazekien harek jakin ere, bakoitzari zer eskaini eta zer saldu. Kotxeko karneta izan arren, kotxerik ez zuen eta hasieran bizkarrean hartuta bantzen zituen etxetresna

guztiak, bai kaleko etxetara baita baserrietara ere. Ondoren motozikleta txiki baten gurpilak zituen gurdi bat lortu zuen eta horretxekin joaten zen hara eta hona. Eta beranduago, dexente beranduago, furgonetarekin hasi zen banaketa eginen.

Garai hartan dozena erdi bat irrati egongo ziren Aretxabaletan, eta Arkauzek saldu zuen lehenengoa Felix Orobengoari izan zen. Irratirik merkeenak, Philetta markakoak, 1.799,90 pta balio zuen. Aretxabaletako lehenengo telebista, ostera, Lauriano Garaik erosi zion Arkauzi.

Poliki-poliki aurrera

Mitarte kaleko eskaparatea txiki geratu eta 1961. urtean Andra Mari auzunean jarri zuen lehenengo erakusketa. Irratiak saltzen hasi zen komertziantek, hamar urteren buruan altzariak saltzen zituen. "Mitarte kalean geneukan metro karratuko eskaparategi, Andra Mari auzuneko lokalera pasatzerakoan lekua soberan zegoen eta aitak, etxetresnez gain, jendeak altzariak behar zituela etxean pentsatu zuen" dio Alberto Arkauzek. Horrelaxe hasi ziren oheak, armairuak, josteko makinak eta sukaldeko armairuak saltzen. "Baina gauza askotxo pilatu ziren denda bakarrean eta altzariak aparte jartea erabaki genuen, Araba Ibilbideko denda zabalduez".

1965. urtean, Araba Ibilbidea 24an, gaur egun Maritxu mertzeria dagoen lekuan, altzarien denda jarri zen eta 1982an gaur egun dagoen tokira, Araba Ibilbidea 20ra, pasatu ziren.

1991an Fagorreko sukaldeko altzariekin denda berria ireki zen Mitarte kalean. Azkenik 1994an, Arrasaten, Etxemobel altzari denda zabaldu zuten.

Familiako negozioa

Guillermo Arkauzek etxetresnak saltzen zituen bitartean, emazteak, diru

kontuak eramaten zizkion. Alberto Arkauz semeak, bestalde, letra ona izan eta 8 urtekin hasita amak esandako kontu guztiak txukun-txukun apuntatzen zituen. Aitak sortutako negozioari semeek eman diote jarraipena, ez gainera nolana hiko jarraipena, poliki-poliki haziz joan da eta komertzioa.

Momentuz etxekoan artean jarraituko du, baina Alberto Arkauzek, negozio eta enpresa askoren gidaritza hirugarren jenerazioak hartzean, itxi egiten direla dio "Jubilatu artean geu ibiliko gara dendan baina gero nork daki...".

50 urte hauek behar den bezala ospatzeko hainbat opari eskaini dizkie Arkauzek bezeroei: egutegiak, kamisetak, opari bikaindun zozketak... Baina 50 urte hauetan bizirik iraun eta haziz joatearen sekretua zein ete da? Hona hemen Alberto Arkauzen errezeta: "Ausarta izatea, irabazitako guztia inbertitzea, lan asko egitea eta zorte txarrik ez edukitzea".



ERREPORTAJEA

Asensio edo "Katalanena" jantzi-denda, Sebastian Asensio jostunak jarri zuen. Alonso semeak ez daki oso ondo noiz izan zen, oraingo lekuan 47 urte eraman arren, aurretik, gaur egun Angelines janari-denda dagoen lekuan egon baitzen. "Katalanena" ezizena bestalde, Se-

bastianen emaztea katalana zelako hartu zuen, baita jende artean zabaldu ere.

Sebastian Asensiok zabaldu zuen dendari jarraitzen, eta orain, poliki-poliki Alberto ilobak hartuko du komertzioaren gidaritza. Izan ere, Asensio-



tarrak komertzio eta oihalen munduari lotutako familia dira. Sebastianen emaztearen aita ere jostuna zen eta Sebastian beraren aita, ostera, komertziantea.

Oihalak saltzen zituen denda

Garai hartan egindako oso erropa gutxi zegoen, oihalak erosi eta jostunek egin ohi zituzten. 20 bat jostun egongo ziren Aretxabaletan bertan, beraz, Asensio jantzi-dendan denetik egon arren jostailuak..., batez ere oihalak saltzen ziren. Demetrio Iriarte ere jostuna izan zen eta tailer txiki bat zeukan, baina denda beranduxeago jarri zuen haren emazteak. Lasagabaster familiak ere izan zuen jantzi-denda Aretxabaletan, baina beranduago, aurretik janari-denda izan zen. Beraz, Sebastian Asensiok jarritakoa lehenengoa izan zela esan daiteke.

Lan lotua

Komertziantea lana, lan lo-

tua dela aitortzen dute "oso egun gutxitan ixten da denda eta denboraldi hasieran, orain bezalaxe, lana barra-barra egoten da. Niri ostera, izugarri gustatzen zait komertziantea lana" dio Alonsok. Oporrak abuztuan hartzen dituzte, baina udazken-negutuan zapatu arratsaldetan ere zabaldu egiten da denda "Lehen domeka eta jaiegun goizetan ere zabaltzen genuen eta ez da hainbeste denbora pasatu hortaz, lantegietan ere zapatuetan lan egiten zen eta".

Gaur egun denda txiki askok itxi beharra eduki dute komertzio haundien aurrean ezin izan dutelako aurrera egin. "Denda haundiek ez daukatena eskaini behar dugu txikiok, bestela jai daukagu. Espezializatu beharra daukagula argi dago" dio Albertok. "Denda txikiok kalitatea produktuetan eta bezeroarenganako zerbitzu hobea eskaintzen dugu, etxera eramanez erositakoa edo erreklamazio bat egiterakoan behar den bezala hartuaz".

Nork ez ditu ezagutu "Katalaneko" beherapenak, kanporaino egoten zen eta jende ilara. Alonsoren esanetan "Guk ez dugu ekarten beherapenetan jarteko jenerorik. Beherapenetan jarten dugun guztia denboraldiko erropa izaten da, hori bai talla solteak, eta hori jendeak badaki".

50. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte, garrantzitsuena bezeroei eskaintzen dien beherapena da, aurtengo urte gutxian % 10eko deskontua erositako edozein jenerotan.





Futbola

Preferenteak irabazi, bigarren erregionalak berdindu. Udako talde nagusiak Trintxerperen aurka jokatu-tako partidua etzekoen garaipenez amaitu zen joan den domekan. Uda 1 eta Oko emaitzaz nagusitu zitzaion Trintxerperi. Golegilea Andoni Rodrighez bergararra izan zen. Bigarren mailako erregionalak, bestalde, banako berdinketaz amaitu zuen joan den asteburuko partidua Eibartarra taldearen aurka.



Frontenis

Lehendabiziko frontenis txapelketa herrian. Kiroletxeak frontenis txapelketa antolatu du datorren irailaren 30etik abenduaren 16ra bitartean. Deba Garaiko pilotalekuetan frontenisean aritzen diren guztiei zuzenduta dago eta binaka jokatu da. Sei bikoteko taldeak egingo dira eta guztiek elkarren aurka jokatu dute. Informazio gehiago gura izanez gero kiroletxera zuzendu daiteke.



Pilota

Unai eta Ibon Errasti Usurbilgo final-aurrekoetan. Usurbilgo final-aurrekoetara iritsi dira Unai eta Ibon Errasti pilotariak. Bi anaiak eskuan izandako minetatik errekuuperatzen ari dira, eta animotsu daude. Hurrengo partidua urriaren 6an izango dute. Txapelketa horrez gain, Ibon Donostiako Opena ere jokatzen ari da, Zabala eskoriatzarrarekin batera. Gainera, jokatutako hiru partidua irabazi ditu bikoteak.



Mendira

Alberto Iñurrategi mendira itzuliko da. Alberto Iñurrategi mendira bueltatzeko asmoa azaldu zuen aurrekoan prentsaurrean. Azken urteotan mendiak eman dion esperientzia eta konfiantza izan dira besteak beste bide hori hartzera bultzatu duten arrazoiak. Bere adierazpenetan mendian eroso eta gustura sentitzen da. Azaroan Malira joateko asmoa du, eta Alpeetara beste irteera bat egiteko ideia ere azaldu du, datorren urteko hasiera aldera.

Jose Mari Armentiak urtebete baino gehiago darama kirol zinegotzi lanetan. Herriak kirol arloan zer eskaintzen duen aztertu eta aurrera begira zer proiektu landu daitezkeen aztertzea da batez ere bere eginbeharra.

■ **Kirol mailan zein proiektu aurreikusten dira datozen urteetarako?**

■ Hiru-lau ideia ditugu orain buruan. Alde batetik, kirol zerbitzua dago, herritarren eskuetara dagoena. Zerbitzu horretan herritarren beharrak jaso gura ditugu, ahalik eta zerbitzu osotuena eskaintzeko. Bestetik, kirol mankomunitatuen ideia dago. Mankomunitatetik bailara mailako kirol instalazio eta zerbitzu osotuagoa eskaini daitekeela uste dut. Hirugarren ideia bat, kirol publiko zein pribatuaren eta kirol elkarrean elkarlana gauzatzea litzateke. Arlo horretan Kirologi proiektua erreferente izan daiteke.

■ **Banan banan aztertuz, gaur egungo kirol zerbitzuak zein aldaketa izango ditu datozen urteetan?**

■ Ikasturte berriarekin kiroletxean hainbat aldaketa izan dira: ordutegia zabaldu da, eta bazkide txartel elektronikoa ipini dugu.

Hala ere, zerbitzuak hobetzera jo behar da. Horretarako kirol teknikari bat daukagu, eta herritarren kezka eta proposamenak entzuteko gertu dago. Azken urteetan antolatzen etorri diren jardueraz gain, ekin-tza berriak egin behar direla uste dugu. Herritarrei teknikariarengana jotzeko eta beren iritziak eta ideiak eman ditzaten eskatu nahi diegu.

■ **Bailara mailan, bestalde, txartel bateratuaren ideia lantzen hasiak zarete.**

■ Pausotxoak eman dira, bai. Momentu honetan bailarako kiroletxe guztietan erabili ahal izango den txartela ateratzeko gaia jorratzen ari gara. Udaletxe guztiek, gainera, ondo ikusi dute ideia. Dena dela, oraindik puntu asko

daude lantzeko: prezioa, funtzionamendua... Ideia horrek instalakuntza bat erabili beharrean, inguruko herrietakoak ere erabiltzeko abantaila eskaintzen du.

■ **Herrian dauden kirol instalakuntzek herriaren eskariari erantzuten diote?**

■ Gure kiroletxeak eta beste kirol instalakuntzek ezin dute herritarren eskaria behar bezala asetu. Hala ere, etorkizuneko kirol proiektuetan Udala aurrera eramaten ari den plan estrategikoak zeresan haundia emango du. Bertan azalduko da herriko kirol lehentasunak zeintzuk diren, eta dirua zein proiektuetan erabili behar den aurreikusiko du lan horrek.

■ **Kanpoko igerilekuaz berba egin da sarritan. Zein iritzi duzu?**

■ Herritarrek askotan eskatu izan dute igerilekua. Nire ustez, kanpoko igerileku batek mantenimendu gastu haun-

diak suposatzen ditu, ura, sorosleak eta garbitasuna... Horrez gain, urtean bi hilabete eta erdian besterik ez dela zabalduko kontuan izan behar da. Era berean, abuztuan kanpora joaten da jende gehiena, eta bestalde, ez da turismo gehiegi gurera etortzen. Proiektu defizitarioa izango litzateke, izatekotan ere, udako pakete osotuago baten barruan joan beharko litzateke eskaintza hori.



Jose Mari Armentia

Kirol zinegotzia

Joseba Zumeta udazkeneko kriteriumeko garailea

Joan den domekan egin zen San Migeletako txirrindulari probak udazkeneko kriteriumeko bi karerra batu zituen. Goizeko proban txirrindulariek Epeleko igoeraz gain, Untzilakoa eta Mendiolakoa ere igo zituzten. Proba gogorra izan zen, beraz, eta txirrindulariak banan-banan heldu ziren Mendiolan jarritako helmugara. Bertaratu ziren ikusleen txalo artean, Joseba Zumeta sartu zen lehenengo helmugan.

Arratsaldean erlojuz kontrako proba egin zen. Sailkapen orokorreko lehen hogeitabat txirrindulariek

hartu zuten parte bertan, zazpiko hiru taldetan banaturik.

Arratsaldeko proban denborarik onena egin zuena Jesus Manuel Chamorro izan zen. Ibilbidearen 10 kilometroak egiteko 14'25"ko denbora behar izan zuen Alcampo taldeko txirrindulariak. Sailkapen orokorrean, barez, goizeko proba irabazi zuen Joseba Zumeta Otzarrretako taldekidea izan genuen irabazlea. Bigarrena, Jon Azkoitia Lan Mobel taldekoa izan zen, eta hirugarrena, Gaizka Lasa Alcampo taldeko txirrindularia.



Goian Mendiolako helmuga.

Beheko argazkian sailkapen orokorreko irabazleak: Jon Azkoitia, Joseba Zumeta irabazlea, Gaizka Lasa eta Iñigo Lariz



Joseba eta Sidney aurrez aurre

Joseba Larrinaga eta Pedro Mari Azkargorta, bere entrenatzailea, datorren urriaren 9an abiatuko dira Sidneyko elbarrutien joku olimpikoetara. Josebak 5000 metroko proba eta maratonia korrituko ditu. Azken hau izango da probarik garrantzitsuen eta gogorrena. Lehen hiru postuetan sartzea izango da bere helburua. "Ilusio osoz noa, eta

domina bat eskuratzeko esperantzaz".

Hala ere, urriaren 29a arte urduritasuna aldean izango du Josebak, maratonia azkenengo proba izaten baita beti.

Entrenamendu gogorrak Sidney ilusio guztia jarrita, gogor entrenatzen dihardu Josebak azken hilabeteotan. Oraintsu Se-

goviatik etorri berria da. Federazioak deituta estatuko atleta gehienak kontzentratuta egon dira bertan. Berarekin batera Euskal Herrietik Javier Condek ere hartuko du parte 2000 jokotan.

Duda barik, entrenamendu eta sakrifizio gogorra eskatzen dute horrelako mundu mailako probek. Animo eta zorte on Joseba.




 TABERNA
ARILUTZ
 MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaeta



Larraitz Iñurrategi jai batzordeko kidea da. San Migel jaiak gertatzen burubelarri aritu da, eta orain jaiok ondo pasatzea gelditzen da. Bere esanetan jaietako berrikuntza nabarmenena ostiraleko Golden Apple Quartet taldea izango da.

Larraitz Iñurrategi "San Migeletan egoten da kale girorik onena"



- **Jai batzordeko partaidea zaitugu. Noiztik?**
- Orain lau bat urte jai batzordea sortu zenetik nago bertan.
- **Zein da zure lana taldean?**
- Iritzi desberdinak jaso, eta herrian zein ekintza egin daitezkeen proposatzea.
- **Zer berrikuntza izango da San Migeletan?**
- Ostiralean Golden Apple Quartet izango dugu, eta herritarrei gustatuko zaiela uste dut. Bestela, giroa herritarrek jarzuten dute jai honetan.
- **San Migelak edo Andramaixak gurago?**
- San Migelak. Oso giro polita egoten da. Andramaixak, barrez, jende gutxiago egoten den arren, atsegin ditut.
- **Zer da San Migeletatik gehien gustatzen zaizuna?**
- Egunean zehar egoten den giroa, eta arratsaldeko Beinke-Loramendi dantza.
- **Jaiak goizez ala gauetz bizi dituzu?**
- Andramaixak gauetz, San Migelak, barrez, egunez.
- **Azken juerga non?**
- Euskal jaietan Zarautzen.
- **Euskal Herriko jairik gustukoena?**
- Aretxabaletakoak.
- **Zer gurago mendiz mendi ala jairik jai?**
- **Jairik jai.**
- **EHEko taldekidea ere bazara. Zer da 1000 Baietz?**
- EHEk Euskal Herri osoan 1000 bazkide baino gehiago lortu asmoz abian jarri duen egitasmoa.
- **San Migeletarako zeozer pentsatu duzue, ezta?**
- Bai, 1000 Baietz kanpainako bazkideak lortzen saiatuko gara. Horretarako postu bat jarriko dugu kalean.
- **Herri mailan zein helburu du EHEk?**
- Osasun zentrua euskalduntzea izango da gure helburuetako bat.
- **Ikaslea zara?**
- Bai, euskal filologia ikasten dihardut.
- **Zein izango litzateke zure lan ideala?**
- Atzerrian euskara irakaslea izatea.
- **Gaurkoan bizi ala biharkoan ere pentsatzen duzu?**
- Gaurkoan bizi.
- **Afizioak.**
- Bertsolaritza.
- **Liburu bat.**
- "Oroituz" Jon Arretxena.
- **Pesimista ala optimista?**
- Nahiko optimista naizela uste dut.

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

**ANDRA
MARI**
Aholkularitza


- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

"ARINSA"

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19



**ARRASATE
HOGAR**

**Koltxoiak
etzeko oihalak
neurritara egindako kortinak**



Araba Etorbidea, 3
San Andres, (BM
ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 08 11

Euskaraz bizitzeko... 26.000 euskaldun zeure zerbitzura!



- 850 jarduera profesional
- 400 udalerrri
- 2.600 helbide elektroniko
- EH osoko posta kodeak

Harpidetza egiteko eta Gida etxean jasotzeko, deitu telefonoz edo bidali postaz honako ebakina.
Bi urterik behin, 50 lib./1000 Pta.ren truke, jasoko duzu Gida etxean bidalketa gastuak barne.

ARTEZ Euskara Zerbitzua • 944 480 000 • Luzarra, 10 -2. • 48014 Deustu (BIZKAIA)

izen-deiturak: _____

helbidea: _____ herria _____ P.K. _____

ordainketarako kontua: _____ / _____ / _____

GRUPO **ARKA**UZ


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etxerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etxerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariak**en (Araba Ibilbidea, 20)
2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

| | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

pta.

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)



Ongi etorri udazkena

Uda joan zaigu. Aurtengoan portatu haiz batzuentzat, beste batzuk hain konforme geldituko ez zituan arren. Joanak joan eta datorrenari arren, hire anaia udazkenak be zeozer kontatu biharko jok eta.

Atxabaltako bikote batek behintzat, aparteko amaiera eman dio udari. Garai batean Arkarazoko goitibehera txapelketan entrenatuta edo, **Mikel Gomez** eta **Iñigo Lizarralde** bergararrak irabazi dute Euskal Herriko goitibehera txapelketa. Azken proba Bergaran izan zen, eta ikuskizun bikaina eskaini ei zuten. Ni neu ez nintzen joan baina ez ziren abixada makalean ibiliko. Zorionak ba txapeldunei eta segi horrela!

Gure arteko beste talde-txo batek, barrez, ez zuen txapelik jaso baina hauek be ez dira makalak. Atxabaltako hiru gazte kuadrila elkartu eta Donostiako klasikaren inbidiarik ez duen buelta bat egin ei zuten pasa den asteburuan. 1967, 1968 eta 1969 urte inguruko mutil kuadrila bat da eta Isurietatik hasi, Untzila, Asensio, San Adrian, Zari-mutz eta Bolinatik, Larriñon merezitako hamarretakoa egin eta etxera. Aspalditxotik duten ohitura bat ei da. Dana dala, parte har-

tzaileetako batek kontatu didanez, pasa den urtean hamabost bat izan ei ziren eta aurten hamar. Neska batzuk animatuko bagina akaso... Datorren urtean badakizue besteoi ere esan. Saririk egon ez arren, Larriñoko hamarretakoarekin konformatuko gara eta.

Honako beste atxabaltar hau, barrez, sariz beteta iritsi zen etxera. **Ibon Errastik** Larramendi bikotearekin batera Lezoko pilota txapelketa irabazi zuen orain bi aste. Txapela, dirua eta eskuko erloju bat jaso zituen sari gisa. Horrez gain, jokalaria berezienaren saria ere berari eman zioten, oraingoan erloju haundi bat.

Saria irabazi duen beste bat **Andoni Altube** izan da. Gaztetzeko logotipo lehaketan berak aurkeztutakoa izan da aukeratua.

San Migelak gainean ditugu. Eguakotxean Golden Apple Quartet, zapatuen Jon Maia eta Igor Elortza eta urteroko omenaldia aurten **Juanito Urretari**. Egitarauan azaltzen den bezala "hau bai gizona hau". Domekero motxila hartu eta mendira, hara ez bada hona. Zorionak, beraz, omen-duari eta besteoi esan beharrik ez: ondo ondo pasau! Eta ea elkar ikusten dugun.

M. J. Arzak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

- Kamila Zebra/Marisa Nuñez; Oscar Villan. -6 urtetik aurrera
- Piztiak bizi diren lekuan/Maurice Sendak. - 6 urtetik aurrera.
- Raul artzaina / Eva Muggenthaler. - 6 urtetik aurrera
- Sorgina eta maisua / Mariasun Landa. - 8 urtetik aurrera
- Airean ere negu usaina nabari da / X. eta M. Etxeberria. - 8 urtetik aurrera
- Aduna eta adunak / Felipe Juaristi. - 8 urtetik aurrera
- Piruleta / C. Nöstlinger. - 8 urtetik aurrera
- Deabru jaun maitea / C. Nöstlinger. - 10 urtetik aurrera
- Malditas matemáticas / Carlo Frabetti. -12 urtetik aurrera
- Nogueira doktorearen laborategia / Agustín Fernández Paz. - 12 urtetik aurrera
- Tanger-eko ametsa / Xabier Vernetta. - 14 urtetik aurrera
- Sexu egunsentiak / Fernando Morillo / 14 urtetik aurrera

NOBELAK

- Begiak itxi eta kitto / Xabier Etxaniz Rojo
- Euliak ez dira argazkietan azaltzen / Joxemari Iturralde
- Estupor y temblores / Amélie Nothomb
- Rabos de lagartija / Juan Marsé
- Sombras sobre el Hudson / Isaac Bashevis Singer
- Obras completas (y otros cuentos) / Augusto Monterroso
- Los buscadores de oro / Augusto Monterroso
- La gata del soltero / L.H. Hoffman
- El hijo bastardo de Eddie / William Kowalski
- El hombre de mi vida / Manuel Vázquez Montalbán
- Placeres terrenales / Philippa Gregory
- Mason y Dixon / Thomas Pynchon
- La mujer de ninguna parte / Javier García Sánchez

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Zeinek ikasi dau azterketarako?
- Inobezek andereino. (txarto)
- Zeinek ikasi dau azterketarako?
- Inok ez, andereino. (ondo).



Denetik

Motorra erosiko nuke.
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi
metalikoak salgai.
Tel.: 666957983.

Kanpineko frigorifiko
berria salgai. 30.000 pta.
Tel.: 943 79 73 92.

Opel Astra GSI 115 cv sal-
gai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-
ra" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98
08 (Mikel).

Ford Sierra 2000 kotxea
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat
saltzen da. Bi urte ditu
eta oso zintzoa da.
Pedigri onekoa.
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Kawasaki Volcan 800
motorra salgai. 900.000
pta. Tel.: 943 77 08 69.

Gaixotasun arazoengatik
negozioaz ezin garelako

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.

**Zure iragarkia honako txoko
honetan jarri nahi baduzu, deitu
943 79 86 21 telefonora
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

arduratu, martxan dago-
en denda alokatzen da
Aretxabaletan.
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-
gailu portatila erosiko
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-
doran sartzeko.
Labeldunak eta natural
hasitakoak. Bildotsak ere
bai. Tel.: 689 541 861.

Roller karabana salgai.
Aurreko estalkiarekin.
Tel.: 943 79 46 84.

Peugeot 205 salgai.
Tel.: 943 77 16 03.

Etxebizitza

Andra Mari auzoan gara-
jea salgai. Tel.: 943 79 74
61.

Pisua salgai Aretxabale-
tan. Andra Mari auzoan.
943 77 13 02.

Aretxabaletan pisu bat
konpartitzeko bi neska
behar dira.
Tel.: 655700705 (Bego) /
944424120.

Pisua salgai Arronizen
(Nafarroa). Lizarratik 15
kmtara. 90 m² + 40 m²
baxua. Egoera ona du eta
prezio egokia.
Tel.: 941 43 10 19.

Andra Mari auzoan gara-
jea alokagai dago.
Tel.: 943 77 08 40

Langile bikote gazte bat
gara eta Aretxabaleta
edo inguruan errentan
hartzeko estudio edo
pisu txiki baten bila ari
gara. Tel.: 943 13 22 63.

Pisu bat konpartitzeko
gertu nago Iruinean.
Lekurik baldin baduzue
deitu: 943 79 39 10.

Garajea salgai/alokagai
Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat
saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera
onean.

Etxeko altzariak salgai,
(umeen gela, salako
altzariak, sofa...). Bi urte
dituzte. Oso merke, guz-
tia 200.000 ptan. Tel.:
943 79 38 16. (Idoia).

Etxea alokagai
Aretxabaletan.
Tel.: 943 79 32 73.

Errekabarren kalean bi
lokal alokagai, 34
m²takoa bata, eta 36koa
bestea. Tel.: 943 79 20 48
/943 77 14 11.

Etxe bat alokatu nahi dut
Aretxabaletan.
Tel.: 943 77 19 81.

ERREKABARREN
MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

Lana

Alemaneko klase partikularrak ematen ditut.

Aleman filologian lizentziatua naiz.

Tel.: 943 79 57 03.

Zerbitzariak behar dira jabetxe baterako.

Tel.: 945 44 50 86.

Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko.

Astean bi ordu.

Tel.: 943 79 83 90.

(22:00etatik 23:00etara)

Zerbitzari eta sukaldari bat behar dira Arrasateko kafetegi batean lan egiteko. Tel.: 943 79 11 15.

Bi ume zaintzeko (16:30etik aurrera) emakumea behar da.

Tel.: 666691567.

Bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da.

Tel.: 666691567.


Lan deialdi publikoak

Administrazio orokorreko teknikaria. Karrerako funtzionarioa. Eibarko Udala. Epea: 20 eguneko epea EAO argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Administrazio orokorreko teknikaria. Karrerako funtzionarioa. Arrasateko Udala. Epea: 20 eguneko epea EAO argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Liburutegi teknikaria. Karrerako funtzionarioa. Arrasateko Udala. Epea: 20 eguneko epea EAO argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ingurumen teknikaria. Karrerako funtzionarioa. Deba Garaiko mankomunitatea. Epea: 20 eguneko epea EAO argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

MAKINAK MUNTATZEKO PEIOIA. Deba Garaia.
Erref.: 37654/1

INFORMATIKAKO BI IRAKASLE. Deba Garaia.
Erref.: 36927/2

TELEKOMUNIKAZIOKO INGENIARIA. Mondragón Eskola Politeknikoa.
Erref.: 38078/2

ALEMANEKO IRAKASLEA. Gasteiz.
Erref.: 38020/2

AKADEMIAKO IRAKASLEA. Gasteiz.
Erref.: 38001/3

SUKALDARIA. Gasteiz.
Erref.: 37769/1

PIANO IRAKASLEA. Arabako lautada.
Erref.: 37607/2

SUKALDARIA. Arabako lautada.
Erref.: 37555/3

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tel.: 943 79 23 43

*Mitartegari
Jabetzea*

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel: 943 79 17 51



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

**T
X
I
L
A
R
R
A**

**ELIKADURA
BEREZIA**



Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETA

REGIANDO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

IKASTAROAK

■ MARGO ETA MARRAZKETA IKASTAROA

Margo lagunak elkarteak margo eta marrazketa ikastaroa antolatu du. Ikastaroa bi astean behin emango da astelehenetik eguenera bitartean 19:00etatik 20:30era bitartean. Dagoeneko ikastaroa hasita badago ere, hurrengo egunetan ere eman daiteke izena. Horretarako Margo lagunak elkarteak Santa Kurtzen duen lokalera jo daiteke edo eta 943 77 13 35 (erantzungailua) telefonora dei daiteke.

■ ANTZERKI IKASTAROA

Gaztetxeak antzerki ikastaroa antolatu du. Urriaren 1etik 6ra bitartean emango da, astelehenetik eguakotxera 18:30etik 20:30era. Irakaslea Olatz Pagaldai izango da. Izen ematea gaztetxean bertan egin behar da. Prezioa 2000 ptakoa da eta langabetu eta ikasleentzat 1000 ptakoa.

IRAILA

29 EGUAKOTXA

■ SAN MIGELAK

Arratsaldeko 18:30etik aurrera hasiko da jaia. Bonba japoniarrak eta erraldoi eta buruhandiak eta Durangoko otxotea izango ditugu arratsaldean. Gauean, barrez, Golden Apple Quartet taldea.

30 ZAPATUA

■ SAN MIGELAK

Egun guztian zehar hainbat ekintza izango dira: trikitilariak, bertsolariak, herri bazkaria, gaiteroak, feria...

URRIA

1 DOMEKA

■ SAN MIGELAK

Herri kirolak, mus txapelketak eta umeentzako parkeak osatuko dute domekako egitaraua.

1-5

■ ERAKUSKETA

Komiki ez sexisten lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira Arrasateko Monterroneko erakusketara aretoan.

7 ZAPATUA

■ JUBILATUEN EGUNA

Goizeko 11etan salda Basotxon. Eguerdiko 12:30ean meza. Ondoren bazkaria kiroletxean eta dantzaldia eta opari zozketa gero.

LEHIAKETAK


■ LOGOTIPO LEHIAKETA

Aretxartek, Atxabaltako merkatarien elkarteak, bere anagrama aukeratzeko logotipo lehiaketa antolatu du. Deba Garaiko eskualdeko edozein auzotarren parte hartu ahal izango du lehiaketan. Neurria DIN A4 formatoa da eta teknika librea. Irabazleak 30.000 ptako saria jasoko du. Lanak Zubia Oinetako dendara bidali beharko dira, Mitarte, 14/20550 Aretxabaleta, 2000ko urriaren 30a baino lehen.

■ LOGOTIPO LEHIAKETA

Badihardugu euskera elkarteak logotipo lehiaketa antolatu du. Deba Ibarrian bizi dan edozeinek hartu dezake parte. Neurria: DIN A4. Bertan agertu beharrezko testua: Badihardugu (Deba Ibarreko euskera elkartia) Epea: urriaren 18a eta ondorengo helbidera zuzendu daiteke: Badihardugu elkarteak/Aldatze kalea, 1 - 3/20600 EIBAR. Saria 25.000 pta.

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Zorion agurrak



Laura Unanue
Irailak 22
Bere urtebetetzean bere aitona-amonak Espe eta Tomas, bere aizpa Esti eta bere lehengusina Maria.




Ainhoa Sanz
Irailak 23
Etxekoan partez zorionak eta muxu haundi bat.



Jorge Bengoa
Irailak 23
Zorionak zure lagunen partetik eta besarkada haundi bat.



Maria Mendizabal
Irailak 26
Bere urtebetetzean bere aitona-amonak Tomas eta Espe bere lehengusuak Esti eta Laura.



Aitor Agiriano
Irailak 26
Zorionak familia-koen partetik.



Ekain Andres
Irailak 26
Zorionak etxekoan eta bereziki Iboneren partetik.



Nerea Altube
Irailak 27
Zorionak etxekoan eta lagunen partetik.



Marisa Miguel
Irailak 29
Zorionak tia Marisal!



Ione Perales (6 urte)
Irailak 30
Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo pasau.



Julen Perales (6 urte)
Irailak 30
Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo pasau.



Nere Uribe
Urriak 1
Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Jone Uribe
Urriak 4
Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Encarna eta Jose Luis
Urriak 7
Zorionak eta egun zoragarria pasatu "hiru k-n" partetik.

Atal honetan zorion agurrik argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

Txistuak • Txaloak

Arratsaldeko 6etan Mitarte eta Durana kaleak itxi egiten dira. Ordu hori heltzen denean, oinezkoentzako momentua iristen da. Hala ere, gero eta arazo gehiago daude motor, kotxe eta bizikletekin. Azken hauek kalea zeharkatzea debekatuta duten arren, abiadura haundiz pasatzen dira sarritan, kalean umeak lasai-lasai jolasten dauden bitartean. Motorzale eta oinezkoen arteko haserre maiz sortu da bi kale hauetan. Legea ez bada betetzen, beharbada kateak ipintzea izango da egokiena, tristeza izango baina. Gure aldetik txistuak bi kale hauetan zehar debekatuta dagoen unean ibiltzen diren motorzale, kotxe gidari eta txirridulariei.



Jaiotakoak

■ **Alaitz Mendieta Altuna**
Irailaren 16an.

■ **Nerea Garay Azkarate**
Irailaren 17an.

■ **Jon Azarola Oskoz**
Irailaren 18an.

■ **Hur Sarasua Antero**
Irailaren 22an.

Aretxabaleta

- **Almen** 943 71 49 07
- **Aretxagazeta** 943 79 86 21
- **Telebista** 943 79 86 21
- **Basotxo** 943 77 09 81
- **Buskaltegia** 943 79 21 68
- **Gizarte-Laguntzailea** 943 79 10 00
- **Hezibide Elkarte** 934 79 31 32
- **Industrialdea** 943 79 62 80
- **Institutua** 943 79 79 00
- **Kiroletxea** 943 71 26 28
- **Kultur-Etxea** 943 71 10 27
- **Kurtzebarri Eskola** 943 79 00 49
- **Kurtzebarri B.H.I.** 943 79 57 40
- **Liburutegia** 943 79 10 00
- **Loramendi E.E.** 943 77 09 70
- **Ludoteka** 943 79 05 81
- **Mankomunitatea** 943 79 30 90
- **Murruxixo M.E.** 943 79 93 74
- **Musika Eskola** 943 79 36 50
- **Ortzadar** 943 79 01 84
- **Osasun zentroa** 943 79 74 58
- **Otalora** 943 71 24 06
- **Parrokia (Bulegoa)** 943 79 18 42
- **Pausoka Haur-Esk.** 943 77 03 77
- **Postetxea** 943 79 28 31
- **Santa Rita Ikast.** 943 79 17 00
- **Saretxo** 943 71 26 56
- **Taxi Geltokia** 943 79 22 33
- **Udal Bulegoak** 943 79 10 00
- **Udaltzaingoa** 943 79 10 52
- **Urats Gain** 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- **Arrasate** 943 79 14 39
- **Bergara** 943 77 91 06
- **Eskoriatza** 943 71 44 07
- **Oñati** 943 78 04 11

Larrialdiak

- **SOS Deiak** 112
- **Eskualde-Ospitalea** 943 03 53 00
- **Ertzaintza** 943 79 71 99
- **Gurutze-Gorria** 943 76 55 76
- **Larrialdiak** 943 46 11 11
- **Suhiltzaileak (Oñati)** 943 78 28 00

Garraioak

- **Pesa** 902 10 12 10
- **Renfe (Gasteiz)** 945 23 02 02
- **Renfe (Zumarraga)** 943 72 15 15

K

urtzebarri eguna pasatu bazen ere, honako beste argazki honi erreparatuko diogu oraingoan. Hau ere Kurtzebarriko gurutze ondoan ateratakoa da, baina 1948. urteko abuztuaren 28an.

Antza denez, Kurtzebarrin gurutzea jarri zela 20 urte pasatu zela eta egindako ospakizuna da; UDA elkarte sortu eta urtebetera hain zuzen. Egun batzuk lehenago herriko mendizale talde bat gurutze ingurua txukuntzen aritu zen. Gurutzea margotzeaz gain, hau hobeto eusteko porlana bota zuten.

Egun horretan meza eman zen tontorrean. Txistulariek lagundutako erromeria eta dantzaldia ere izan ziren ospakizunen artean. Argazkian agertzen den Luis Arruek ere, Arrue zaharraz ere ezagutzen denak, airoso dantzatu zuen. Urte morderka bat izango zituen ordurako, baina dotore-dotore jantzitza igo zen puntara.



Kurtzebarrin zita

Luis Arrueren istorioak ezagunak dira herrian. Enpresa gizon argia zen. Beroa lantegia sortu zuen, eta plantxa elektrikoak egiten hasi zen, besteak beste. Komertzial lanetan ere ez zen atzean gelditzen den horietakoa. Madrileran plantxak saldu ondoren, apropos jendea bialtzen zuen hemendik plantxok erostera, beti ere,

plantxa kopurua baino erosle gehiago bialduz. Gizon argia eta alaia zela diote ezagutzen zutenek.


Argazkian ezkerretik esku-mara: **Guillermo Arkauz, Luis Arrue (Arrue zaharra), Jeronimo Uribesalgo, eta mutikoa Alberto Arkauz.**

*Argazkia: Alberto Arkauz
Informazioa: Alberto Arkauz,
Juanito Urreta, Mariano Otero.*




LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



**Ondo
pasa
San
Migéletan**



EGUZKIGRAF
Inprimategia



**Pintxoak
Otartekoak
Hanburesak
Patata brabak**

**Ondo pasau
San Migelak!**

Lauxitta taberna

ORDUTEGIA: 10:00etatik 22:00etara Lauxitta kalea, 4 20550 ARETXABAETA ☎ 943 79 29 36



RENAULT Scénic RX4

Ohiko bidetik ateratzen da

Nire sekretua
zein den galdakizun?
Begirada bat gora
eta ohartuko zara
zein erraza den ohiko
bidetik ateratzea.

